



OINARRIZKO EKINTZAK

Beste dokumentuetan azaldu bezala, gure zerbitzuak eskolei eta udaletxeei eskainiko dizkiegu, bezero finalak immigranteak izan arren. Bakoitzari eskaintzen dizkiegun zerbitzuak ezberdinak izango dira, jarraian azalduko ditugunak. Bai udaletxeei, bai eskolei bi programa mota eskaintzen dizkiegu: pertsonalizatuak eta guk proposatutakoak.



Eskolak: Eskoletan hitzaldiak emango ditugu, datu batzuk emanez sarrera moduan. Hitzaldia emango dituzten pertsonak Euskal Herrira etorri diren immigranteak izango dira, beraien esperientziak azalduz.

Bestalde, hitzaldiak ikasleen adinaren arabera egokituak izango dira: 6-11 urte bitarteko ikasleak debateen, txotxongiloen, jokoen... bidez azalduko diegu gauza garrantzitsuak. 11-15 urte bitartean hitzaldi batzuk egingo genituen, beti ere, ekintza batzuk eginez. 16 urte aurretik, hitzaldiak sakonagoak izango lirateke.

- **Proposatutako programa:** hezkuntza mailaren arabera ordu gehiago edo gutxiago izango ditu programak, ikasleen adinera egokituta.
 - LHko 1-3. mailen kasuan, astean bi orduz egongo ginateke hiru hilero; denbora behar dute ulertzeko edo gutxienez zalantzan jartzeko guk transmititu nahi dieguna.
 - LHko 4-6. mailetan hiru hilero bost orduko. Lehen hilabetean bi ordu eta beste bietan ordu bat hilabetero (eskolarekin erabakiko genuke).
 - Nerabeentzat hiru ordu astero izango lirateke hiru hilabete batean. Hiru orduak banatuak edo egun berean izan ahalko lirateke.
- **Pertsonalizatutako programa:** Epe pertsonalizatua bestearekin desadostasunez eta ordu gehiago nahi izanez gero hautatu daiteke. Plan pertsonalizatu bat hautatuko genuke eskolarekin ordu kopurua erabakiz. Noski prezioa ordu kopuruekin handitzen joango litzateke.
 - Muga:
 - LHko mailetan egunean gutxienez 1h izango lirateke, eta gehienez 3h. Astean 2 hitzaldi gehienez izango lirateke eta txandakatzen; hau da, aste bat bai aste bat ez. Gehienez 3 hilabete iraungo luke epe hau.
 - Nerabeekin ordea, 1h gutxienez eta 3h gehienez izango lirateke egunero 3 hitzaldi gehienez ematen astean. 2 hilabeteetan emango genituzke hitzaldiak, asteak aldatuz (aste bat bai beste bat ez).



Udaletxeak: Guk planifikatzen eta eskaintzen ditugun ekintzen artean auzo-bazkariak dauzkagu; horietan bakoitzak haien herrialdeetako janari tipikoa eraman dezakete, eta aldi berean hemengo janaria dastatu dezakete. Era honetan, elkarbizitza ona bermatuko litzateke, atzerritarren aurkako erasoak txikituz. Gainera, atzerritarrak ongietorriak sentituko lirateke auzoetan haien kulturarekin ukipenean mantentzen baimentzen diegulako.

- **Proposatutako programa:** aste bat bai, aste bat ez, egunak aldatuz, izango da ekintza, eta bi ordu eta erdi iraungo du. Horrela 6 hilabetez (jarraian) izango da.
- **Pertsonalizatutako programa:** Epe pertsonalizatua besterekin desadostasunez eta ordu gehiago nahi izanez gero hautatu daiteke. Honetan, gurekin negoziatzeko aukera izango dute bezeroek, nahi dituzten egun kopuruak adieraziz.

➤ Muga:

Ekintzen iraupena, proposatzen dugunaren epea oinarri hartuta, ekintzen iraupena bi ordu eta erdikoa izango da. Bost ordu gehienez. Maiztasuna minimo hiruhileko bat eta maximo 12 hilabete. Hilabete kopurua ez du zertan jarraian izan beharrik, gure profesionalen eta bezeroen arteko.

Fluxugrama edo jarduera-diagrama algoritmo edo prozesu baten **irudikapen grafikoa** da. Hau da gurea:

FLUXUGRAMA

